

Encarnita Ortegari debozio izateko otoitza agertu da

Gazte izatearen ederra! zioen
hiltzeko zenbait hilabete baino
gelditzen ez zitzaiola eta Opus
Dein ia 55 urte bete zituela

2004 Urr 6

Encarnita Ortega Pardo 1920eko
maiatzaren 5ean jaio zen, Puente
Caldelasen (Pontevedran), familia
kristau batean. Bere haurtzaro eta
gaztetasuna Galizia eta Aragoiko
lurretan igaro zituen. 1941ean san

Josemaria Escrivak zuzendutako
gogo-jardunaldietan izan zen
Alacuasen (Valentzian) eta Jainkoak
bere Opus Deirako deia ikustarazi
zion.

Encarnitak laster moldatu zituen
bere bizitzan Opus Deiren
fundatzailearen irakaskuntzak, eta
eguneroko eginbeharraren bitartez
sendotu zituen kristau onbideak.

Jainkoarenganako fedea eta animen
aldeko maitasuna bere zerbitzu
jarreran nabari ziren; honek bere
buruaz ahaztera bultzatzen zuen,
harremanetan ibiltzen zen jendearen
ondasun espiritual eta materialez
jabetzeko. 1946an Erromara joan zen
eta san Josemariarekin batera Opus
Deiren hedatasunean aritu zen
munduan zehar.

Espainiara 1961an itzuli zen eta,
buru eta bihotzez, zenbait ekimen
apostolikotan parte hartu zuen. Bere
azken urteak Valladoliden igaro

zituen. 1980an minbizia
diagnostikatu zioten. Hamabost urtez
gaixotasun horren bizikide izan zen;
dena dela eta, ez zuen bere lan
erritmoa murriztu. Heroitasunez
maite izan zuen Jainkoaren nahia eta
beste pertsona batzuei oinazearen
balio santutzailea azaldu zien, oinaze
hau Jesukristoren Gurutzearekin bat
egiten denean.

Edozein egoeratan, Jaungoikoarekiko
maitasun elkarrizketan azaltzen zen
bere erruki bizi trinkoak,
laguntasunaren bidez, besteak
Jesukristo aurkitzen laguntzeko
bidea bihurtzera eraman zuen.
Pertsona asko Encarnitarekiko
laguntasunaren bidez
Jainkoarengana hurbildu ziren eta
euren kristau biziaren zentzua
argitasun berriz ulertu zuten.
Santutasun ospean hil zen Iruñan,
1995 eko abenduaren 1ean.

Urbano VIII Aita Santuak dekretuen onespean adierazten dugu Autoritate eklesiastikoaren judizioa ez dela moldatu nahi eta otoitza honek ez duela gurtza publikoaren helbururik.

Debozio pribatuarako otoitza

Jauna, zure alaba Encarnitari mundu erdian santutasuna aurkitzeko edertasuna erakutsi diozu eta bide hori, Opus Dei, fideltasunez ibiltzeko grazia eman diozu: emaidazu bera bezala egunez egun zure maitasuna aurkitzeko eta nire inguruan daudenei zabaltzeko grazia.

Gorets ezazu zure alaba Encarnita eta emaidazu bere bitartez eskatzen dizudan mesedea ... (eskatu)

Gure Aita, Agurmaria, Aintza.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/encarnita-ortegari-
debozio-izateko-otoitza-agertu-da/](https://opusdei.org/eu-es/article/encarnita-ortegari-debozio-izateko-otoitza-agertu-da/) (2026
Mar 10)